


# GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Inaugurazioa: irailak 17

Babeslea:



Erretratu batzuek protagonistaren testuinguru soziala, ekonomikoa eta politikoa agerian uztea lortzen dute, baita bere garaiko espiritua argi eta garbi jasotzea ere. Alice Neelek pintatzen hasi zenetik erdietsi nahi izan zuen helburu hori, baita lortu ere, soberan gainera, eta indar emozionalez blaitzen zuen bere obretako bakoitza.

Erakusketa hau sortzaile estatubatuarrari espainiar estatuan eskainitako lehenengo atzera begirakoa da, eta obra-multzo berezi askoa biltzen du, gehienak erretratu biziak eta zehatzak, non artistak indar handiz islatu zituen berarentzat posatu zutenen nortasuna eta presentzia.

Bere lanean, hiriko bizitza modu berri batean irudikatzeko borondatek abiatzen zen Neel, batez ere hainbat hamarkadaz bizileku izan zuen New Yorki zegokionean; izan ere, XX. mendeko metropoli edo hiriburu sinboliko bihurtzen da New York bere koadroetan.

Iberdrolarentzat pozgarria da Guggenheim Bilbao Museoaren erakusketa berri hau babestea, historia idazteko beste modu bat baita artea: genero, arraza edo egoera sozialagatik babesgabe dauden pertsonen historia ahaztua; aldi berean profesional eta ama izan ahal izateko borrokan jardun behar izan duten emakumeen historia.

Bere ibilbide luzean zehar, Alice Neelek muga eta konbentzio sozial zein artistiko ugari gainditu zituen bera izateari utzi gabe bere bidea egiteko eta pinturaren arloan zituen asmoak betetzea lortzeko. Eginahalak eta bi egin zituen munduari zenbat balio zuen erakusteko, eta azkenean eskuratu zuen aitortza, batez ere bere karrerako azken hamarkadetan.

Neelen pinturak existentzia ospatzen du, baita haren tragedien berri ematen ere. Artistak bizitzaren eta bakoitza bere zirkunstantzien aurrean aurkezten zituen erretratatu zituen pertsonak, oso egoera gogorretan askotan, eta berak bizitako esperientzien testigantza ere ematen zuen, tartean galerena eta doluena.

Erakusketan jasotako obretan, Neelentzako posatu zuten pertsonen begirada behatuko du bisitariak, baina artistaren beraren begiradaren aurrez aurre ere jarri ahal izango du, eta hala, haren anbizioa, esplorazio sakona eta gizatasun ukaezina ezagutzeko aukera izango du.

Horregatik, bisitari guztiak animatzen ditut erakusketan erretratatuak pertsonen grinean murgiltzera eta, haien bidez, XX. mendearen lehen zatiko AEB hartan bere garaia aurrea hartu zion emakume aldarrikatzailearen testigantza ikustera. Ez baitugu ahaztu behar Iberdrolak lotura estua duela herrialde harekin.

Eta, amaitzeko, aintzatetsi egin nahi dut Museoko arduradunek honako erakusketa hau gauzatu ahal izateko egindako lan handia, baita kulturaren arloan garatzen diharduten zeregin bikainean jarraitzeko egiten dutena ere. Izan ere, gure Erakundea oso harro dago zeregin horretan lankidetzan aritzeaz.

**Ignacio S. Galán**  
**Iberdrolaren Presidente**

## *Alice Neel: pertsonak lehenbizi*

- Datak: irailak 17, 2021 – otsailak 6, 2022
  - Komisarioak: Kelly Baum, arte garaikidearen arduraduna ‘Cynthia Hazen Polsky and Leon Polsky’, eta Randall Griffey, arte moderno eta garaikidearen arduraduna Metropolitan Museum of Art-en, Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduradun Lucía Agirrerekin batera
  - Metropolitan Museum of Art-ek antolatutako erakusketa Guggenheim Bilbao Museoarekin eta The Fine Arts Museums of San Francisco-rekin lankidetzan
  - Babeslea: Iberdrola
- 
- Neelek galeraren eta sufrimenduaren eszenak dokumentatzen ditu bere obretan, baina baita indarraren eta erresistentziaren eszenak ere, izugarritzko zintotasunarekin eta enpatia handiarekin gainera.
  - New Yorkeko Spanish Harlemen bizi izan zen denbora luzean, Alice Neelek bere auzokideen arima jaso zuen bere pintzelarekin; etnia anitzeko populazio bat zen, babesgabea, eta ordura arte kasu bakan batzuetan bakarrik hartua izan zena gai gisa artearen arloan.
  - Bere obrari oso sentimendu berezi bat dario, pertsonaien zaurgarritasunean jarritako arretagatik ez ezik, agerian uzten duelako ere emakumeen borroka emozionala eta fisikoa, bereziki, bera bezala, emakume behartsuena.
  - 1940 eta 1950eko hamarkadetan figurazioa modaz kanpo geratu zenean eta New Yorken Espresionismo Abstraktua goren unean zenean –Neelek “antihumanistatzat” jotzen zuena– artistak uko egin zion bere estiloa aldatzeari, bere jardun artistikoan beti aritu izan bazen ere formekin eta teknikekin esperimentatzen.
  - Biluztasuna eta sexua, giza esperientziaren alderdi gisa, gai nagusiak dira Alice Neelen obran. Are gehiago, erabateko segurtasunez iraultzen du genero horri eman ohi zaion tratamendua artearen historian zehar, non emakumeak objektu erotiko soil gisa ageri baitiren.
  - “Niretzat, pertsonak dira lehenbizi. Gizakiaren betiereko duintasuna eta garrantzia berresten saiatu naiz”. Alice Neel, 1950.

Guggenheim Bilbao Museoak *Alice Neel: pertsonak lehenbizi* erakusketa aurkezten du, Espainian eskainitako lehenengo atzera begirakoa Alice Neel (Pensilvania, 1900–New York, 1984) artista estatubatuarri, Iberdrolaren babesari esker. Erakusketak Neelen ibilbide artistiko osoa jasotzen du, ia ehun pintura, marrazki eta akuarelaren bitartez, erretratu zirrargarrienak barne, gaur egun beren zorrotzasun psikologikoagatik goraiatuak.

Erakusketaren ibilbidea bere **hasierako obra** batzuetatik hasten da, besteak beste: *Neska frantsesa* (*French Girl*, 1920's), Filadelfiako Emakumeentzako Diseinu Eskolan izan zuen egonaldian ziurrenez egina; eta *Carlos Enríquez* (1926) erretratua, pintzelkada soltez egindako obra, 1927an Habanan ikusgai jarria.

1920ko hamarkadako bizitasun handiko Kuba hartan bizi ondoren, non lehen aldiz erakutsi ziren bere obrak jendaurrean, 1927an New Yorkera bueltatu zen Alice Neel, bere behin betiko bizilekua izango zen hirira. Han, dibertsitatea eta bertako jendeen borroka hasi zen jasotzen iruditan, baita hiriko parkeak eta eraikinak ere, eta inguratzen zuen bizitzaren testigantza ematen hasi zen horrela. 1930eko eta 1940ko hamarkadetan Franklin D. Roosevelt presidentearen *New Deal*/programako Works Progress Administration (WPA) agentziarako hasi zen lanean Alice Neel. Artea historia da Neelentzat; hala, **New Yorkeko bizitza politikoa** eta bertako gertaerak jasotzeko balio dio bere obrak. Horren erakusgarri dugu *Naziek juduak hiltzen dituzte* (*Nazis Murder Jews*, 1933) obra, non 1936ko Maiatzaren Leheneko desfilea irudikatzen duen, manifestari ugari erakarri zituen —pintura horretan Neelen kideko artista batzuk ageri dira aurrealdean— sortu berri zen erregimen naziaren antisemitismo ankerraz ohartaraztearren.

1938az geroztik eta 1962ra arte, Alice Neel eta bere familia **Spanish Harlem**en bizi izan ziren, eta bere auzokideen arima jaso zuen artistak bere pintzelekin; etnia anitzetako populazio babesgabea bizi zen han, ordura arte kasu bakan batzuetan bakarrik hartu izan zena gai gisa artearen arloan; horren adibide bat dugu *Georgie Arce 2. zk.* (*Georgie Arce No. 2*, 1955). Artistak ume bat zenetik ezagutzen zuen Arce, eta maiz pintatu izan zuen urteetan zehar. Obra honetan Arce nerabezaroan aurkezten digu, bere buruaz seguru eta mehatxagarri izan gabe, nahiz eta laban bati ari zaion eusten Neelengana zuzendua eta, hedaduraz, ikuslearengana.

Neelek sarritan aipatu izan zuen Honoré de Balzacen **Giza Komedia**. Izan ere, giza ekintzaren kausak eta efektuak XIX. mendeko Frantziako gizartean aztertzen dituen obra hori erreferentziakotzat hartu zuten marxismoaren izen handiek. Bere ideario pertsonaletik abiatuta eta XX. mendeko New Yorken tinko sustraitutako ikuspegi batetik, Alice Neelek galeraren eta sufrimenduaren eszenak jasotzen ditu bere obran, baina baita indarraren eta erresistentziaren eszenak ere, eta izugarritzko zintzotasunarekin eta enpatia handiarekin gainera. Pertsonaien zaugarritasun fisikoetan eta psikologikoetan Neelek jarritako arretak oso sentimendu berezi batez —sarritan paleta mugatu batekin indartuta— blaitzen ditu sail honetako bere koadroak. Bere *Pediatría-klinikak* (*Well Baby Clinic*, 1928-1929), artistaren obra espresionistenetako batek, Neelek 1928an bere alaba Isabetta erditu zuen ospitalea islatzen du; emakume behartsuentzako zentro bat, artistak leku "oso goibela" zela zioena. Pintura honetan bere burua ageri da irudikatuta, bere alabarekin une baketsu eta bare batean, inguratzen duten giza miseriaren erdian, eta horrela uzten du agerian emakumeen borroka emozionala eta fisikoa, bereziki, bera bezala, emakume behartsuena.

Erakusketak **hiriko paisaien** atal bat biltzen du. Bertan, artistak New Yorkeko eraikinen eta parkeen eguneroko edertasunaren testigantza ematen du. Hala, *Central Parken* (1959) uztartu egiten dira natura eta inguruko eraikinak, paisaia artifizialetan sortuta, non gainjartzen den eguzkia eta, eskailera batzuen oinean, bi irudi txikiak galduta diruditen hiriko handitasunaren aurrean.

Neelen pintzelkada zorrotzari ihes egingo ez zion beste genero bat **natura hila** da, zeinak aukera erakargarriak eman baitzizkion bai abstrakzioarekin esperimintatzeko, bai ezaugarri duen umore hori

agerian uzteko. Azken honen adibide dugu *Esker-emate eguna* (*Thanksgiving*, 1965), non Neelek zintzur egindako indoiilar bat irudikatu duen harraska batean, Ajax potearen, esponjen eta gosariko plateren artean, eta horrekin adierazten du pop arteari ematen dion erantzuna; *Natura hila, Siriako arrosa* (*Still Life, Rose of Sharon*, 1973) koadroan, berriz, testuren eta materialen efektuen, bitartez geratzen da agerian pinturarako zuen trebetasuna.

Artistak **abstrakzioari** buruz zuen iritziak eboluzionatu egin zuen bere ibilbidean zehar. 1940 eta 1950eko hamarkadetan errepresentazio figuratiboa modaz kanpo geratu zen eta, batez ere New Yorken, indar handia hartu zuen Espresionismo Abstraktuak, baina Neelek uko egin zion bere estiloa aldatzeari edo baztertzeari. Testuinguru horretan, publikoki kritikatu zuen arte abstraktua, eta “antihumanista” zela adierazi zuen. Dena den, Neelek bere ibilbidearen amaieran egindako hausnarketak, zeinaren arabera pintura bikain orok dituen “ezaugarri abstraktu onak”, aditzera ematen du beti jardun zuela formekin eta teknikekin esperimentatzen bere jardunean. *Adikzioa* (*Addiction*, 1931) da Alice Neelen obra abstraktuena, eta bai forma zurrunbilotsuek eta koadroan ageri den giza irudi distortsionatuak, bai tituluak berak, egoera mental aztoratu bat iradokitzen dute, asaldura psikikoa eta fisikoa islatzen dutena. Filadelfia inguruko ospitale psikiatrikoetan igarotako urtean pintatu zuen Neelek *Adikzioa*, baina ezin da jakin bere asmoa ote zen bere egoera mentalaren irudi bat aditzera ematea. Dena den, akuarela honek azpimarratu egiten du formari, koloreari eta espazioari artistak ematen dien garrantzia, berezko esanahia transmititzen duten elementu gisa, eduki biografiko edo irudikapenaren zehaztasuna alde batera utzita.

**Biluzia eta sexualitatea** bi gai nagusi dira Alice Neelen obran, giza esperientziaren alderdiak diren aldetik. Biluzia, artearen historian gehien heldu izan zaion generoetako bat dela kontuan hartuta, eta genero horretan emakumearen rola objektu erotiko soil izatera mugatu izan dela, erronka berezi bat izan zen Alice Neelentzat, eta, halakotzat, gaia bere egin eta irauli egin zuen erabateko segurtasuna erakutsita.

Batetik, gizonen biluziak egiterakoan, asmamen eta gatz handiarekin heldu zien Neelek emakumeen errepresentazioetan maiz ikusten diren erotismoaren konbentzioe horiei. Bestetik, Neelek emakume haurdunen biluzietan jarri zuen arreta handiak ez du aurrekaririk, bereziki gai hori sarritan edulkoratu edo beatifikatzen zuen kultura bisuala nagusitzen zen garai batean.

Bere lerro margotuak sentsibilitatez trazatzen ditu ipurdi lodien ingeradak, zakil bigunak, bular eroriak eta larruazal tenkatua, eta sinesgarritasunez jasotzen ditu giza forma biluziaren berezitasunak eta ahalmena, bai gizonena, bai emakumeena, haurrena, zaharrena, haurdunena edo bikoteena. Neelen koadroetan aitzakiarik gabe eta bere zintzotasun osoa erakutsiz agertzen da beti gorputz biluzia. Ethel Ashton pintorearen biluziak (1930) errukirik gabe irudikatzen du haren irudia, eta egia psikologikoa erretratatzearen garrantzia uzten du agerian; Joe Goulden erretratuan (1933), berriz, Greenwich Villageko eszena bohemioko pertsonaia bitxi hori bere gorputz biluziaren beste bi bista partzial alboan dituela erakusten du. Irribarre eginez, begirada aurrez aurre ikusleari bueltatzen ari zaion bitartean, Gouldek, efektu harrigarrian, hiru zakil ditu ilaran. Neelen teknika zakarra bat dator gaiarekin, eta aipatzekoa da bere izaera grafikoagatik zentsuratu zela koadroa; izan ere, ez zen 1973ra arte jendaurrean aurkeztu.

Biluziaren atal hau artistaren 1980ko autorretratuak ixten du. Bertan, bere gorputz zaharra erakusten du gizarteari kritika bat zuzenduz, zeina ez baitagoen ohituta ez arte ederretan ezta kultura popularrean ere berea bezalako gorputzak irudikatuta ikustera.

Artista gisa, Alice Neelen lorpen handienetako bat akuarela delikatuen bitartez erakusten dituen askatasuna eta zintzotasuna dira –*Alienazioa* (*Alienation*, 1935) lanean adibidez– sexuari eta, emakume gisa, bere sexualitateari heltzeko garaian. Aipatutako obrak ez du sentimendu erromantikoaren arrastorik ere; bertan, Neelek bere maitalearekin batera irudikatzen du bere burua, ohe gainean biluzik, begiak eta ahoa itxita dituela, maitalea zutik dagoen bitartean bere aurrean, galtzerdi gorrixka batzuk jantzita dituela, konposizio trianguluar bat eratuz ohearen oineko barrekin eta Alice Neelen kolore bereko ilearekin.

Bere ibilbidean zehar Neelek lehen planoan jarri zuen **amatasuna**. Hala, etapa desberdinetan, erditu aurretik eta ondoren, pintatu zituen amen irudiak, eta obra horiek erradikalenetakoak dira sortu zituenen artean. Kultura popularrean eta arte ederretan agertzen diren klixerik ez bezala, Neelen amak zintzoak eta zehatzak dira. Bere pinturek eta marrazkiek enpatiaz islatzen dute seme-alabak edukitzearen eta haztearen erronka. Neelek ondo ezagutzen zituen amatasunari lotutako presio fisikoak eta psikologikoak, bereziki, berak bezala, anbizio profesionalak zituzten amentzat. Gai horri bere ibilbidearen hasieratik –*Ama eta haurra, Habana* (*Mother and Child, Havana*, 1926) adibidez– azken egunetara arte heltzen dio –*Carmen eta Judy* (*Carmen and Judy*, 1972) adibidez–. Azken obra honetan ozta-ozta antzematen dira bizitza-aztarnak Judy txikiarengan, zeinak, bere ama Carmenen bularra ondo-ondoan edukita ere, ezin baitu bularra ahoan hartu; horrela erakusten da haurraren egoera, handik gutxira hil zen haurrarena.

Emakume haurdun biluzien bere tratamenduak ez du aurrekaririk artearen historian. *Erditzea* (*Childbirth*, 1939) lanean, artistak bere seme Richard jaio ondoren ospitalea utzi eta handik gutxira pintatua, emakume bat erditzen erakusten duen aurrenetako koadroetako bat da. Amaetxean ondoan zuen emakumearen erretratu bat da, erditzeko unean, eta Neelen beraren esperientzia agonikoa aditzera ematen du.

Artistak irmo mantendu zuen “pertsonek koadroak” pintatzeko bere konpromisoa, inguruan zituen horienak bereziki, eta **Kontrakulturaren / Kulturaren** parte ziren horienak. Artistaren beraren hitzetan “beste baliabide batek ez bezala islatzen dute bere garaia. Erretratuek kalitate artistikoa dutenean, kultura, uena eta askoz ere gauza gehiago islatzen dituzte [...] Artea historiaren forma bat da [...] Hau da, pintura bat da [pertsonek baten erretratuak] eta gainera *zeitgeist*-a da, garaiko espiritua”. (Hills, *Alice Neel*, 134, 167. or.)

Erakusketak hainbat erretratu aurkezten ditu, Neelek egindako zirrargarrienak, beren zorroztasun psikologikoagatik gaur egun gozesten direnak. Bere modeloen artean asko dira ezezagunak, baina bere familiako kideak, artistak, aktibistak, eskubide zibilen liderrak eta bere bizitzako une desberdinetan ezagutu zituen pertsona ospetsuak ere pintatu zituen. Neelek halako erakargarritasuna sentitzen zuen muga sozialak, politikoak eta kulturalak gainditzen dituzten pertsonen aurrean, eta modeloen ezaugarri bereizgarrietan jarri zuen bere arreta, konposizioaren elementuetako bakoitza zainduz, haien nortasunak nahiz bitxitasunak nabarmentzearren.



*Ama Bloor-en heriotzan (Death of Mother Bloor, 1951)*, Alice Neelek, ziurrenez argazki batean oinarrituta, Ella Reeve “Mother” Bloor (1862–1951) erretratatu zuen bere hil-ohean; Alderdi Komunistako aurreneko liderretako bat izan zen “Mother” Bloor, aitzindaria emakumeen eta langile-klasearen eskubide zibilak defendatzen. Bestetik, *Rita eta Hubert (Rita and Hubert, 1954)* koadroan, kolorearen, kontrastearen eta marrazkiaren estudio bikain bati esker irudikatu zituen Hubert Satterfield idazle ezkertiarra bere neskalagun Ritarekin batera.

Bukatugabea dirudielako atentzioa ematen duen obra bat *Soldadugai beltza (James Hunter)* [*Black Draftee (James Hunter)*, 1965] da. 1965ean, Lyndon B. Johnson presidenteak lurreko indarrak Hego Vietnamen nabarmen handitzea erabaki zuenean, James Hunter ezagutu zuen Neelek kasualitatez, eta koadro baterako posa zezan eskatu zion. Gaztea errekrutatu berri zuten eta astebete geroago zegoen aurreikusita bere irteera. Bere ohiko praktikari jarraituz, Neel zuzenean hasten da gorputzaren ingeradak mihisean marrazten, ondoren buruaren eta eskuen aldeak betetzeko. Hunter bigarren saiorako itzuli ez zenez, osatutzat eman zuen obra Neelek, bukatu gabe egon arren, eta atzealdean sinatu eta bederatzirte geroago aurkeztu zuen.

## KATALOGOA

*Alice Neel: pertsonak lehenbizi* erakusketa dela eta, katalogo bat editatu da, artista estatubatuarren sortze-lanaren zazpi hamarkadak biltzen dituena, bai bere ikuspegi existentziala bai bere pinturaren berezitasun plastikoak nabarmenduta. Kelly Baum, Randall Griffey, Susanna V. Temkin, Meredith A. Brown eta Julia Bryan-Wilson dira liburu hau osatzen duten saiakeren egileak, Neelen bizitza eta ibilbidea ez ezik, bere ideiak, bere humanismoa eta pertsonen duintasunaren bere aldarrikapena argitzen laguntzen dutenak.

## DIDAKTIKA

### In Focus: Haize kontra

Didaktika proiektuaren barruan –BBKek babestua– Museoak gune didaktikoak, online edukiak eta jarduera bereziak diseinatzen ditu erakusketa bakoitzaren inguruan. *In Focus: Haize kontra* izenarekin, Alice Neelen erakusketaren hezkuntza-guneak informazio osagarria eskaintzen du pintore honen obran funtsezkoak diren alderdietan –grina, erresilientzia, inklusioa, aktibismoa, genero-auziak eta manifestazio publikoak, besteren artean– betiere unean uneko joera artistikoetatik kanpo.

Bisitariak eskuragarri izango du gai horiei buruzko idatzizko materiala, baita artistaren oinordetzak ekoiztutako *Alice Neel*/pelikula ere euskarritzat.



Erakusketari loturiko jarduerak

**Sarrerako solasaldia** (irailak 15)

Metropolitan Museum of Art-eko arte-arduradun Kelly Baumek eta Randall Griffeyk eta Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduradun Lucía Agirrek erakusketa honen alderdi interesgarrienei buruz jardungo dute.

**Hausnarketa partekatuak**

Museoko Arte Ardura eta Hezkuntza arloetako profesionalek eskainitako aparteko bisita hauetan ikuspegi desberdinak ematen dira erakusketa berriaren edukiei buruz.

- Arte-arduraren ikuspegia (irailak 29): Lucía Agirrek, Museoko arte-arduradunak, ibilbide bat egingo du erakusketako obra nagusietatik.
- Funtsezko kontzeptuak (urriak 6): Museoko Hezkuntza eta Interpretazioko zuzendariorde Marta Arzak obren gako didaktikoei buruz arituko da bisitariekin elkarrizketan aretoetan.

\*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre.

**Alice Neel proiektzioa** (urriak 15)

Andrew Neelek zuzendutako eta artistaren The Estate-k ekoiztutako pelikula honetan Alice Neelen obra eta New Yorkeko hiriar buruzko erreferentziak erakusten dira, 40 urtetik gorako ibilbide batean.

**Sorkuntza-saioa: Erretratu batetik harantz** (abendua 2)

Sonia Rueda artistak emango duen tailer honetan, Alice Neelen ezohiko erretratuekin lotuta zenbait gai landuko dira, besteren artean, giza irudia, identitatea eta itxura.

**Azaleko irudia:****Alice Neel**

*Elenka, 1936*

Olio-pintura mihise gainean

61 × 50,8 cm

The Metropolitan Museum of Art, New York. Dohaintza: Richard Neel eta

Hartley S. Neel, 1987

© The Estate of Alice Neel, Bilbo, 2021

**Informazio gehiago:**

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazioa eta Marketina saila

Tel: +34 944 359 008

[media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

[www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)



Prentsak erabiltzeko irudiak  
***Alice Neel: pertsonak lehenbizi***  
Guggenheim Bilbao Museoa

### Prentsako online irudien zerbitzua

Museoaren web-orriko prentsa-eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.es](http://prensa.guggenheim-bilbao.es)) erregistratu zaitezke bai erakusketen bai eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzue, erregistratu zaitezte eta behar duzuen materiala deskargatu.

Dagoeneko erabiltzaile bazarete, sartu zuen erabiltzaile-izena eta -gakoa, eta sarbide zuzena izango duzue irudien deskargara.

- Ematen diren irudiak *Alice Neel: pertsonak lehenbizi* erakusketarekin zerikusia duen publizitate editorialerako soilik erabili behar dira. Erakusketa 2021eko irailaren 17tik 2022ko otsailaren 6ra bitartean egongo da publikoarentzat zabalik Guggenheim Bilbao Museoa.
- Irudiak osorik erreproduzitu behar dira, mozketarik, gaininpresiorik eta manipulaziorik gabe, azaletan ez ezik; kasu horretan, artistaren estudioak onetsi beharko du maketa. Erreproduzioekin batera datu hauek adierazi behar dira: artistaren izena, obraren titulua eta data, jabearen kreditua, copyrighta eta argazkiaren kreditua.
- Online argitaratutako irudiek babestuta egon behar dute segurtasun-neurri elektronikoko egokien bitartez.
- Irudi orok 1.000 pixeleko berezimena izan dezake gehienez, alderik luzeenean. Online argitalpenean fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin izango da deskargatu.
- Irudiak ezin dira transferitu hirugarren bati edo datu-base batera.
- Azaletarako irudien erabilerak kostu bat izan dezake eta alde aurretik obraren jabearen eta copyrightaren titularraren baimena behar izango du.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Eremuarekin +34 944 359 008 telefonoan edo posta elektronikoko helbide honetan:  
[media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

### **Alice Neel bere estudioan New Yorken, 1960 inguruan**

Argazkia: The Estate of Alice Neel

© The Estate of Alice Neel, Bilbo, 2021



### **Alice Neel**

*Carlos Enríquez, 1926*

Olio-pintura mihise gainean

76,8 × 61 cm

The Estate of Alice Neel

Eskaintza: The Estate of Alice Neel

© The Estate of Alice Neel, Bilbo, 2021



**Alice Neel**

*Naziek juduak hiltzen dituzte (Nazis Murder Jews), 1936*

Olio-pintura mihise gainean

106,7 × 76,2 cm

Rennie Collection, Vancouver

© The Estate of Alice Neel, Bilbo, 2021



**Alice Neel**

*Georgie Arce 2. zk. (Georgie Arce No. 2), 1955*

Olio-pintura mihise gainean

76,2 × 55,9 cm

Lonti Ebersen bilduma

© The Estate of Alice Neel, Bilbo, 2021



**Alice Neel**

*Central Park, 1959*

Olio-pintura mihise gainean

111,8 × 86,4 cm

The Estate of Alice Neel

© The Estate of Alice Neel, Bilbo, 2021



**Alice Neel**

*Esker-emate eguna (Thanksgiving), 1965*

Olio-pintura mihise gainean

76.2 × 86,4 cm

The Brand Family Collection

© The Estate of Alice Neel, Bilbo, 2021



**Alice Neel**

*Autorretrata (Self-Portrait), 1980*

Olio-pintura mihise gainean

135,3 × 101 × 2,5 cm

National Portrait Gallery, Smithsonian Institution

© The Estate of Alice Neel, Bilbo, 2021



**Alice Neel**

*Carmen eta Judy (Carmen and Judy), 1972*

Olio-pintura mihise gainean

108,6 × 83,5 × 4,4 cm

Oklahoma City Museum of Art, Westheimer Family Collection

© The Estate of Alice Neel, Bilbo, 2021



**Alice Neel**

*Maria haurdun (Pregnant Maria)*, 1963

Olio-pintura mihise gainean

81,3 × 119,4 cm

Bilduma pribatua

© The Estate of Alice Neel, Bilbo, 2021

**Alice Neel**

*Nancy eta Olivia (Nancy and Olivia)*, 1967

Olio-pintura mihise gainean

99,1 × 91,4 cm

Diane eta David Goldsmithen bilduma

© The Estate of Alice Neel, Bilbo, 2021

**Alice Neel**

*Elenka*, 1936

Olio-pintura mihise gainean

61 × 50,8 cm

The Metropolitan Museum of Art, New York. Dohaintza: Richard Neel eta

Hartley S. Neel, 1987

© The Estate of Alice Neel, Bilbo, 2021

**Alice Neel**

*Geoffrey Hendricks eta Brian (Geoffrey Hendricks and Brian)*, 1978

Olio-pintura mihise gainean

118,7 × 93,3 cm

San Francisco Museum of Modern Art. Truke bidez eskuratua, dohaintza

anonimo bitartez .

© The Estate of Alice Neel, Bilbo, 2021

**Alice Neel**

*Soldadugai beltza (James Hunter) [Black Draftee (James Hunter)]*, 1965

Olio-pintura mihise gainean

152,4 × 101,6 cm

COMMA Foundation, Belgika

Eskaintza: The Estate of Alice Neel

© The Estate of Alice Neel, Bilbo, 2021

